

## **“Donostian sinesten dugu” kanpainaren HIZKUNTZA-IRIZPIDEEN INGURUKO KONTROL MOZIOA**

Josu Mirena Ruiz Martinek, EH BILDU udal taldeko zinegotziak, Udalbatzaren Araudi Organikoaren 98. artikulua ematen dion aukera baliatuz, “Donostian sinesten dugu” kanpainaren hizkuntza irizpideei buruzko MOZIOA hau aurkezten du, Osoko bilkuran azter dadin. Mozio hau Pertsonetako Batzordean 2016ko urtarrilaren 14ko bilkuran egindako interpelazioaren ondorioa da.

### **JUSTIFIKAZIOA**

Azarotik hona kanpaina zabal baten lekuko izan gara mota guztietako euskarrien bidez: busetako markesinetan jarritako kartelak, esku-orriak, poltsak, iragarkiak eta abar. Kanpaina “Donostian sinesten dugu” izeneko da eta Ekonomia Bultzatzeko, Merkataritzako, Ostalaritzako eta Turismo zinegotziak (hala sinatua dator) bultzaturikoa, beste hainbat eragileren parte hartzearekin batera.

Kanpainaren helburu espezifikoak alde batera utzita, deigarria izan da euskarari eman zaion trataera eta, horren ondorioz, kexa ugari jaso ditugu. Akaso kanpaina bultzatzen duten beste eragile batzuen baldintzak izan dira, baina, hala ere, ulertezina da, Udalak bereak dituen jarraibideak betetzeko derrigortasuna baitu.

Udal Gobernuak, aldiz, behin eta berriro agindu du, bereziki Euskararen zinegotzi ordezkariaren ahotik, irizpide eta jarraibideok betetzeko prestutasuna. Batzordean, hala ere, Ernesto Gasco zinegotziak V. Euskara Plangintzaren irizpideak bete ez zirela aitortu zuen. Hori dela-eta honako MOZIO hau aurkezten dugu.

1-Udalbatzak hertsatuki eskatzen dio Merkataritza, Ostalaritza eta Turismo zinegotziari, bere departamenduak parte hartzen duten ekitaldi, kanpaina eta abarretan euskara plana bete dezala.

Donostian, 2016ko urtarrilaren 22an

**Josu Mirena Ruiz Martin**  
**EH Bildu udal taldeko zinegotzia**